

BASURIN ENPRESAK ERATZEKO LAGUNTZAK

1. Artikulua. HELBURUAREN DEFINIZIOA ETA DIRULAGUNTZAREN XEDEA.

Oinarri hauen helburua laguntza ematea da, jarduera ekonomiko berriak abian jartzeko beharrezko eratze-gastuak egin dituztenei, eta horretarako itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak emango dira, hala ere hori gertatzeko, fisikoki Basaurin kokatuak izan behar dute –Izartu I. eremua (1. Eranskina), eta zonaldearen birsorkuntzari lagundu behar dio.

2. Artikulua. DIRULAGUNTZA JASO DEZAKETEN PERTSONAK ETA ESKATUTAKO BALDINTZAK.

2.1. Laguntzak jaso ditzakete bai pertsona fisikoek bai juridikoek bai nortasun juridikorik gabe ekonomia-unitatea edo banandutako ondarea eratzen duten erakundeek, hurrengo baldintzok betetzen dituzten heinean:

a) Enpresa Plana edo Bideragarritasun Plana, edo hala badagokio, Enpresaren txostena egina izatea Behargintza Basauri-Etxebarriko Autoenplegua Laguntzeko Zerbitzuak darabilen metodologiaren arabera, eta proiektua aipatu Zerbitzuak egina edo aztertua izango da, eta horrek bideragarri gisa kalifikatua.

b) Basauriko udalerrian eman behar da alta (Izartu I. zonaldea), bai Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan bai Gizarte Segurantzako Erregimenean.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan egiten den hasierako alta 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera egina izatea.

d) Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzaren egunean dagoela egiaztatu behar da.

e) Ez dute dirulaguntza publikoak jasotzetik kanporatuak egon behar, arau-hausteak egitearen ondorioz.

f) Dirulaguntzaren unean, enpresaren jarduerarekin jarraitzea.

2.2. Lehentasuna izango dute, emakumeek, gazteek, 45 urtetik gorako pertsonak, eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektiboek garatutako proiektuek.

2.3. Dirulaguntza hauen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira, erakunde eta sozietate publikoak.

3. Artikulua. ESKARIAK AURKEZTEKO ERA.

3.1. Dirulaguntzen eskariak Basauri Etxebarriko Behargintzan aurkeztuko dira (Baskonia 1), hurrengo dokumentazioarekin batera:

a) Eskari orria enpresaren ordezkariak duen pertsonak sinatua, eta horretarako aurreikusitako beste datu-orriak, eta horien artean honako hauek daude:

b) Jatorrizko fakturak eta horien kopiak, eta egindako gastuak egiaztatuko dituzten egiaztagirak, gastu horiek diruz laguntzeko modukoak balira, eta benetan, indarrean legokeen oraingo ekitaldian ordainduak balira.

c) Pertsona juridikoaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia, edo eskatzailearen NANarena.

d) Sozietateak diren kasutan, pertsona eskatzailearen ordezkariak ahalmenaren fotokopia, eta baita pertsona fisikoaren N.A.N.a, edo horren lan-baimena.

e) Enpresa eratu dela agertuko duten erregistroko datuak, eta eratzeko eskrituren kopia.

f) Gizarte Segurantzari dagokion Erregimenean alta emateari buruzko kopia (autonomoak) eta Enpresa Gizarte Segurantzari alta emateari buruzko kopia.

g) Jarduera Ekonomikoen gaineko zergan alta emateari buruzko kopia.

h) Jarduera eta funtzionamenduko lizentziaren kopia, edo horren eskaria.

i) Basauriko Udalaren Ekonomia eta Ogasun Arloko jatorrizko egiaztagiria, udal izaerako zerga-betebeharretan egunean dagoela ziurtatuko duena, edo behin-behinekotasunez, eskaria egindakoarena, bai enpresa osatzen duten pertsona bakoitzarena, bai enpresarena berarena.

j) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren egiaztagiri eguneratuak, non egunean daudela agertuko den, aipatu erakundeekin dituzten obligazioetan, bai enpresa osatzen duten pertsona bakoitzarena, bai enpresarena berarena.

k) Enpresa txikiaren baldintzak betetzen direla egiaztatuko duen zinpeko aitorpena. (Eredua, honi erantsita doa).

l) Egin diren kontratazioak egiaztatzeko dokumentuak (TC-2 eredua, edo nahikotasuna izango duen beste egiaztagiriren bat).

m) Zinpeko aitorpena, non agertuko den ez direla kanporatuak izan dirulaguntza publikoak jasotzetik, arau-hausteak egitearen ondorioz.

Udal honek emandako dirulaguntzarik jaso balute, egokiro justifikatu dituztela agertuko duen zinpeko aitorpena.

Inbertsio bererako izanik, beste erakunde pribatu nahiz publiko batzuei eskatutako edo horiek emandako laguntzei buruzko zinpeko aitorpena. (Eredua, honi erantsita doa).

n) 8.2., 8.3. artikuluan deskribatutako kolektibo gutxietsi batekoa dela egiaztatuko duen egiaztagiria, *eta lana edo lanbidea emakume-enpleguaren indize txikiagoarekin egiten dela egiaztatzea.* (Eredua, honi erantsita doa).

o) Basauriko Udalaren hartzekodunaren fitxa, non enpresaren banku-datuak jasoko diren. Fitxa hori, enpresaren kontua zein erakunde finantzarioan dagoen kontuan izanda, erakunde horrek zigilatua egon behar du. (Eredua, honi erantsita doa).

p) Negozio Plana edo, hala badagokio, Negozio Txostena, azken horren edukia Autoenpleguko Ataleko teknikariek esplizitua egingo dute.

q) Behargintza Basauri-Etxebarrik eginiko ziurtagiria enpresaren egoera eta bideragarritasunari buruz, horretarako beharrezkoa den dokumentazioa eskatuko da.

r) Negozio Planean aipatutako lankidetzak erabakiak.

3.2. Basauriko Udalak 10 laneguneko epea emango du akatsak zuzentzeko edo falta den dokumentazioa aurkezteko.

4. Artikulua. ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA.

Eskariak aurkezteko epea, oinarri hauen behin-betiko testu osoa BAO-ean argitaratu ondorengo biharamunean, hasiko da, eta amaitu berriz, esleitutako aurrekontu-zenbatekoa agortzen denean, edo hori gertatu ezean, 2007ko azaroaren 30an.

5. Artikulua. ONURADUNEN OBLIGAZIOAK.

5.1. Jarduera ekonomikoa, gutxienez, 12 hilabetean mantentzea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan hasierako alta eman denetik hasita, ez bada behintzat dokumentalki, jardueraren etetea bere borondatez kanpoko arrazoiengatik gertatu dela, egiaztatzen. Udalak, edozein momentutan, obligazio hori betetzen dela egiaztatzen zuzendutako jarduerak egin

ahal izango ditu, eta horretarako, onuradun izandako pertsonari eskatu ahal izango dio, ezen aurkez dezala hori egiaztatzen duen dokumentazioa.

5.2. Edozein aldaketaren berri ematea, edozein izanik ere inguruabarra, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan edukia bada, hori bestalde bai objektiboa bai subjektiboa izan daiteke.

5.3. Basauriko Udalak eska dezakeen edozein informazio ematea, emandako dirulaguntzei buruzkoa eta bere funtzioen egikaritzan bada.

5.4.- Helburu bererako, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik lortu dituen diru-laguntzen edo bestelako laguntzen berri ematea Basauriko Udalari.

6. Artikulua. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Dirulaguntza hauek osatzen dituzten funtsa publikoek izaera mugatua dute, hain zuzen, Basauriko Udaleko 2007ko aurrekontuaren erabilgarritasun-mugaraino, eta hori 27.447,41 eurokoa da.

Arautegi honetan araututako laguntzek Eusko Jaurlaritzaren babesia dute, eta baita Europar Gizarte Funtsarena ere, Izartu I. Planaren bidez.

7. Artikulua. BESTE LAGUNTZEKIN BATERAGARRITASUNA

7.1. Dirulaguntza hori bateragarria izango da beste edozein erakunde edo organismok eman ditzakeenekin, baldin eta hurrengo baldintzok beteko balituzte:

a) Oinarri hauetan ezarritako laguntzek, 96/C8/06 Batzordearen Komunikazioan ezarritako «mínimis» arauak bete beharko dituzte, hain zuzen, Europar Batasunaren markoan, horretarako eman diren «mínimis» laguntzak edo beste arau edo xedapenak, eta hori horrela, onuradun berari emandako laguntza desberdinen zenbateko osoa, «mínimis» kontzeptupean, ezingo da 100.000 euro baino handiagoa izan, hiru urteko epean.

b) Oinarri hauen babesean, diruz lagundu daitezkeen enpresen proiektuek ezingo dute beste laguntzarik jaso, edozein delarik ere bai horien izaera bai ematen duen Organo edo Administrazioa, baldin eta oinarri hauetatik eratorritakoei beste batzuk metatu, eta arautegi komunitarioan aurreikusitako laguntzen metaketari buruz jarritako mugak gaindituko balituzte, eta inoiz ezingo dute, horien bidez subentzionatutako inbertsio edo gastu-proiektuaren kostua, gainditu.

c) Emandako laguntzetatik kengarriak izango dira zuzenean, beste Organo edo Administrazioek emandako beste edozein, eta diruz lagundu daitezkeen ekintzak diren bezainbatean, horietan helburu bera adieraziko balitz, eta aurreko zenbakian adierazitako gehienezko mugak gainditzen dituzten kasuetan.

8. Artikulua. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN EGITATEA, ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

8.1. Oinarri hauen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastu edo inbertsioak dira hurrengo hauek:

a) Irekitze lizentziak edo baimenak, negozioa dagoen lokalaren transmisioa, eta/edo obretako udal baimena.

b) Eratze gastuak: Notaritzako gastuak, estatutuak idaztea, Ondare-eskualdatzeen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, merkataritzako erregistroan inskribatzea, merkataritza-liburuak erostea eta merkataritzako izena edo marka erregistratzea.

c) Hasierako publizitatearen gastuak (prentsan eta aldizkari espezializatuetan iragarkiak jartzea, txartelak, iragarkiak, ...)

d) Profesionalen elkargora edo sektoreko elkarteetara sartzea.

e) Jarduerari hasiera emateko beharrezko aseguruak egitea.

f) Teknologia erabiltzeko baimenak beste erakundeen dirulaguntza jaso dutenenak izan ezik.

g) Marken eta merkataritza izenen erregistroa.

8.2. Dirulaguntzaren zenbatekoak ez du, diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoa, gaindituko, benetan ordaindu diren gastuei dagozkionak, eta inola ere ez du 700 euroko zenbatekoa gaindituko, pertsona fisikoak edo nortasun juridiko desberdindua ez duten erakundeak direnean, eta ezta ere 1700 euro pertsona juridikoak direnean.

Aipatu zenbatekoak %15ean areagotu daitezke, 900 euroko gehienezko kopurura arte, pertsona fisikoak eta nortasun juridiko berezitua ez duten erakundeak izanik, eta 2.200 euro arte, pertsonak juridikoak izanik, baldin eta proiektua hurrengo batek sustatua bada:

—Emakumeak (baldin eta bazkide kopurua, eta kapitalean, beren parte-hartzea %50ekoa edo handiagoa balitz).

—Langabezian leudekeen pertsonak, horiek enpleguko zerbitzu publikoan, gutxienez 12 hilabeteko antzinasunarekin, inskribaturik baleude, eta 40 urtetik gorakoak izanik, gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin.

8.3. Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa 1.100 eurokoa izango da, pertsona fisikoentzat eta nortasun juridiko berezitua ez duten erakundeentzat, eta 2.600 eurokoa pertsona juridikoentzat, hurrengo edozein kasutan:

a) Emakumeak ordezkaritza gutxi duen sektoreetan garatutako proiektuak (II. Eranskina)

b) Enplegua sortzeko proiektuetan, eta horrela direla joko da, behin-betiko kontratazioak egiten direnean.

c) Gizarte-egoera ahuleko pertsonak bultzatutako proiektuak direnean (izaera hori duten bazkide kopurua, eta kapitalean, horien parte-hartzea %50a edo handiagoa bada). Izaera hori ezagutzen zaie:

-Txertaketako Errenta Minimoa edo Gizarte Larrialdiko Laguntza jasotzen duten pertsonak.

-Drogamenpekotasun edo alkoholismo arazoak dituzten pertsonak, horiek errehabilitazio edo gizarteratze prozesutan baleude.

-Espetxeetan leudekeen pertsonak, espetxe-egoerak enplegu baterako sarbidea baimenduko balie, eta preso ohiek, baldin eta beren kontura jarduera bat hasiko balute, askatasuna lortu ondorengo urte beteko epean.

-Inmigranteak eta errefuxiatuak diren pertsonak, Komunitatetik kanpokoak izanik.

-Minusbaliotasuna duten pertsonak, eta horrela direla joko da, Eskumena duen Erakunde Ofizialak luzatutako minusbaliotasuneko egiaztatgia dutenak.

8.4. Sustatzaile edo sustatzaile-talde bakoitzeko, proiektu bakar baten eratze-gastuak lagunduko dira bakarrik.

9. Artikulua. BALORAZIOA ETA DIRULAGUNTZA EMATEA

9.1. Dirulaguntzaren balorazioa, hori ematea eta ordainketa, ekitaldian zehar, era jarraituan egingo da, eta modu horretan, helburu horretara esleitutako funtsak, ekitaldian zehar gastatzen, joango dira.

9.2. Epaimahaian, eskariei ebazpena emateko orduan, gutxienez, hurrengo hauek egon beharko dute:

- Sanitate, Kontsumo eta Enplegu Sustapeneko Atal Burua
- Udaleko Enplegu Teknikaria
- Behargintzako Autoenpleguko Teknikaria.
- Enplegu Sustapen Arloko Ordezkarria.

Eta hitza izango duen arren, boto eskubiderik gabe: talde politiko bakoitzeko ordezkarri bana.

Dirulaguntzak emateko prozesuan zehar planteak daitezkeen gertakari eta erreklamaziori ebazpena emateko eskumena du Epaimahaiak, eta baita, egoki iruditutako aurrekari edo txostenak eskatzeko eskumena ere.

9.3. Diru-laguntzak emateko ohiko prozedura norgehiagokaren arabera izango da. Aipatu prozedurari jarraipena emanez, dirulaguntzak ematea, aurkeztutako eskarien arteko konparaketa eginez, egingo da, horien arteko lehentasuna ezartzeko helburuz.

9.4. Salbuespenez, dirulaguntzak ematen dituen organoak hainbanatzea egingo du dirulaguntzaren onuradunen artean, dirulaguntzarako esleituta dagoen zenbateko osoa kontuan hartuta.

9.5. Epaimahaiak eskari guztiak aztertuko ditu, hain zuzen, oinarrietan ezarritako baldintzak bete eta hor adierazitako dokumentu guztiak aurkeztu dituzten eskariak, eskariak oinarri horiei jarraiki ebaluatuko ditu, eta ebazpena ematea dagokion organoari proposamena egingo dio, bestalde hor, dirulaguntzak jasoko dituzten onuradunak eta kopuruak agertuko dira, eskatzaile bakoitzaren meritu espezifikoaren arabera.

9.6. Erabakitze ahalmena izango duen organoa alkatetza izango da, eta gehienez ere, eskaera jaso eta 6 hilabetera erantzun beharko du.

9.7. Berariazko ebazpena izan ezean, administrazioaren isiltasuna ezeztapen gisa ulertuko da.

10. Artikulua. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.

Epaimahaiak egindako balorazioa ikusita, eskariei, Alkatek hartutako erabaki bidez emango zaie ebazpena, eta ebazpen horren jakinarazpena idatziz emango zaie eskatzaileei.

Onuradunak, berari dagozkion gastuak, fakturen bidez, eta ordainketaren egiaztagirien bidez, zurituko ditu.

Laguntza, adierazitako banku-zenbakian ordainduko da.

Dirulaguntzak ordainketa bakar batean ordainduko dira, eta hori oinarri hauetako 8. artikuluan aipatutako parametroen arabera izango da.

11. Artikulua. OINARRIAK EZ BETETZEA.

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako baldintzetako bat ez balu beteko, dirulaguntza izateko eskubidea galdua lukeela adieraziko dion deklarazioa egingo litzateke, bestalde, jasotako kopuruak itzultzeko obligazioa izango luke, eta dirulaguntzaren ordainketa unetik kontatuko diren berandutze-interesak eskatuko litzazkioke.

12. Artikulua. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA.

Izaera pertsonaleko datuak, oinarri hauei dagokien izapidetzearen ondoriozko dokumentazioan oinarrituta islatuko direnak, Udal honetako eta Basauri-Etxebarri Behargintza, SL Udal Sozietateko datu-fitxategiko zati izatera pasako dira, horiek, izaera orokorrarekin, eskaintzen dituzten zerbitzuen gestioa errazteko helburuz.

Dirulaguntzen programan parte-hartzeak eskatzen du, ezen ematen diren izaera pertsonaleko datuak beste Herri Administrazioen esku utziak izan daitezkeela, edo Basauriko Udalaren eta Basauri Etxebarri Behargintza SL Udal Sozietatearen erakunde laguntzaile direnen esku. Lagapen hori, hala ere, udalaren eta sozietate horren funtzioekin, zuzenean, zerikusia lukeen helburuak betetzeko egingo litzateke.

Pertsona eskatzaileak datu horiek sartu, zuzendu, deuseztatu eta kontra egiteko eskubidea erabili dezake, eta baita, legearen arabera egokitu dagozkionak, bai Basauriko Udaletxean, bai Baskonia kaleko 1.ean dagoen Basauri-Etxebarri Behargintza SL udal sozietatean.

1. ERANSKINA

Izartu Zonaldea hurrengo kale hauek osatzen dute:

Agirre Lehendakaria kaleko 1etik 31 arte

Arizgoitiko plaza

Asturias

Axular

Basozelai

Baskonia

Bidasoa ibaia

Bidearte

Fauste Deuna

Florian Tolosa

Foruak

Gipuzkoa

Ibaizabal

Iparragirre

Jacinto Benavente

Jose Etxegarai

Juan Ibargutxi

Juan Ramón Jimenez

Kareaga Behekoa

Kareaga Goikoa

Karmelo Torre

Landa Doktooren kalea

Marcelino Gonzalez

Particular Asturias

Pintor Zuloaga

Ramon y Cajal

Severo Otxoa